



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

Fanzineen Gerra 2024

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 35. Asteak, FNACekin eta Euskal Itsas Museoarekin elkarlanean, berriro antolatu du Fanzineen Gerra, berriro ekin dio euskarri horien bidez generoarekiko grina bizia aditzera eman eta aldarrikatzeko.

Tinta eta paperezko gerra honetan Astea dela eta argitaratutako hainbat fanzine lehiari arituko dira publikoaren babesa lortzeko datozen **urriaren 25a eta azaroaren 1a bitartean**.

Izena emateko epea **urriaren 11a arte** egongo da zabalik, **eguerdiko 12:00ak arte**. Gehienez **6 taldek** parte hartuko dute. Bi hautaketa-irizpidek izango dute lehentasuna: lehena, aurretik inoiz parte hartu ez izana gerran eta, bigarrena, inskripzio-ordena.

Oinarriak: www.sansebastianhorrorfestival.eus

Inskripzioa: guerrafanzines@gmail.com

OINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Inskripzioak egiteko azkeneko eguna urriaren 11a izango da, 12:00ak arte, helbide elektronikoa honetan: guerrafanzines@gmail.com
- Gehienez 6 talde onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteko emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute, baita jendaurrean aurkezteko ere.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko 8 orrialdetan (azala eta kontrazala) egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiako eta beldurrezko zinemaren munduarekin, herri kulturarekin, nostalgia frikiarekin... lotuta egon behar du bere osotasunean edo partzialki. 2 orrialdek gutxienez lotura izan behar dute 2024ko Beldurrezko Astearen programazioarekin. Edukiaren zati bat aldeztu aurretik prestatu ahal izango da. Euskaraz edo/eta gaztelaniaz sor daitezke.
- Fanzineak parte-hartzaile bakoitzaren baliabide propioekin (idazketa, maketazioa...) egin beharko dira. Publikoaren artean banatuko diren kopien kostua Beldurrezko Asteak ordainduko du.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen, FNAC Donostiaren eta Euskal Itsas Museoaren logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.
- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu behar zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari emandako egunaren eta orduaren aurretik, pdf-ko artxibo digitalean eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu gehienez kanpaina egiteko, publikoaren aurrean bere fanzinea aurkeztu eta bere aldeko botoa eskatzeko, antolatzaileek emango dioten egunean, urriaren 25a eta 31a bitartean.
- SARIAK. Talde irabazleak FNACen erosteko hiru txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Eraitza azaroaren 1eko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.

Parte hartuko duten fanzineak zinemaldiaren webgunean jarriko dira:

www.sansebastianhorrorfestival.eus

Prestakuntza lantegia
Aukeratu zure fanzinea
urriak 19 / 11:00
Euskal Itsas Museoa

inskripzioa: itsasmuseoa.eus/eu/jarduerak/agenda

Tailer honetan, ikastaroko parte-hartzaileek erdi argitaratutako fanzine bat landuko dute. Era guztietako irudiak dituzten hainbat orrialde izango dituzte, etanahi bezala ordenatu ahal izango dituzte. Parte hartzaileak orrialde horietan esku hartu ahal izango du, marraztuz, margotuz, gehituz edo tatxatuz. Azkenean, bakoitzak oinarri komun bat duen fanzine pertsonalizatu bat sortzea lortuko du.